

Mugako zuberotarrak

Philippe Etxegorri, 2007/05/25.ean

LABURPENA

Ikusgarria da euskarak mendeetan zehar ukan duen atzerakada geografikoa. Hala ere ez da beti hala izan. Biarnoko ertzean, Zuberoakilako mugan hain zuzen, euskara erromantzearen eremuan berriz sartu eta errotu zen. Biarnoko landak landu zituzten zuberotarrek beren mintzaira, bizimoldea eta sinesmenak eraman zituzten baita egundaino gorde ere. Azterketa labor honen bidez, Biarnoko euskara eta euskaldunak gaur egun zertan diren azalduko da.

ARAUAK

Etxeko zubereraz idazterakoan, ondoko bi arauak erabili ditut:

- ‘ => bokalarteko ahoskatu gabeko R bakuna
- a’ ... ü’ = ara ... ürü (ara > a’a > a’)
- ś = zubereraren j hotsa, batuaz S ahoskatzen eta idazten bada ere

Aitzin solasa

Lehenik eta behin, irakur dezagun Urdazubiko Axularrek 1643ean bere GEROn idatzi zuena: “*Zeren anhitz moldez eta diferentki minzatzen baitira euskal herrian, Nafarroa garaian, Nafarroa behelean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhotan*”.

Bigarrenik, gure garaikide batek azaldua dugu, Txillardegik hain zuzen : “*Larrasketek etxez etxe zehartu zuen*” eta “*Eskiulaz gain, Jeruntze, Orin, Oloroeko Sanpe, Iñhazi, Arhantze eta Aramitzeko euskaldun baserrien zerrenda argitara zuen*”. Larrasket (1885-1953) Eskiulan sortu zen, Barkoxen bizi izana zen eta hainbat azterketa RIEVen argitaratu zuen.

Orain azterketaren eremua zehaztu dugula-eta, irakur dezagun Jeruntzeko JohaÑe Mainhagük 1999ean bere loba txikiari idatzi ziona:

Eztik aspaldi badakigüla Eskiula Biarnon dela, mila esker hi'e kazeta'entako. Egia dük eztiela Eskiula ahazte. Eztük ihu' e' arrenkü'atü Je'unzeko Lazea ber khuntin dela. Lürra Biarnoko, eta jentik üska'z mintzatzen –lehenago phü'– eta üskaldün izan nahi.

Ez dik aspaldi badakigula Eskiula Biarnon dela, mila esker hire kazetarendako. Egia duk ez dutela Eskiula ahaztu. Ez duk inor ere arreguratu Jeruntzeko Lazea ber kontuan dela. Lurra Biarnoko, eta jendeak euskaraz mintzatzen –lehenago bederen– eta euskaldun izan nahi.

Azkenik, beste lekukotasun bat, oraingoan Jeruntzeko amona batena, zeinek bere bilobari behin kontatu zion hegoaldeko ikerlari pare batek beregana jo zuela, euskara noraino mintzatzen zen galdetzeko asmoz.


Aipatu lehen pertsonaia apaiz letratua zen, zalantzarik gabe ezagutza handikoa. Bigarrenak ere hezkuntza ona zukeen. Hirugarrenak eta laugarrenak, aldiz, alegia ez zekiten hainbeste, baina bai euskaldunak zirela, nahiz Biarnoko lurretan bizi. Artikulu honen idazlearen osaba handia eta amona ziren.

Hurrengo ataletan, Biarnoko euskaldunak nondik datozen eta non diren aztertuko dugu. Ondotik, lehenengo denboretan nora jotzen zuten eta gaur egun euskarari zer neurritan atxiki dioten ikusiko dugu. Azkenik, aztertu eremuko zubereraren hainbat bereizgarri azalduko dugu.

1. Euskararen hedapena aroetan zehar

1.1. IKUSPEGI OROKORRA

Akitaniako euskararen atzerakadarik handiena erromatarren eta inbasioen garaian gertatu zen (lehen milurtean) eta datu fidagarri gutxi heldu zaigu. Bi iturri nagusi dugu Akitaniako euskararen historiaren aztertzeko: toponimia eta agiri zaharrak.



Antzinako euskararen hedapen geografikoa

TOPONIMIARI ETA LINGUISTIKARI ESKER DAKIGUNA:

- Antzintasunean (k.a. I. mendera arte), akitaniarrek euskara motako hizkuntza mintzo zuten. Aztarna anitz gaskoieran utziko zuten, baita Akitaniako herrien izenetan ere.
- Horren lekuko OSSUM herri atzizkiaren hedatzea da (orain OS eta OUS; OZE euskaraz). Garona ibaieraino heltzen da, gutxi gorabehera, baina ez du osoki erromatarrek sortu Novempopulaniako mugekin bat egiten.
- V. mendera arte, erromatarrek Akitaniako ipar eta ekialdean hego-mendebaldean baino sakonago sartu ziren. Lehen eremuan ACUM eta ANUM atzizkidun herriak gehiengo dira (gaur egun: ACQ eta AN). Bigarrenean OZE atzizkidunak gehiengo dira.
- Pirinioetako ibarretan, gaskoierak oso era bereziak ditu. Bertan euskarak luzeago biziraun zukeen. Ezaugarriak aipagarrienetakoa determinatzailea da. Latinezko erak *ellum* eta *ella* ziren. Ordokietan, *lo* eta *la* bilakatu ziren. Pirinioetan, *eth* eta *era* bilakatu ziren, euskararen ahoskera islatuz. Biarnon, menditik Oloroe hiribururaino erabiltzen dira.

AGIRIEK ETA DATU HISTORIKOEK AZALTZEN DIGUTENA:

- VI. mendean, baskoiek Akitania inbaditu zuten eta bertako euskara indarberritu. Frankoen idatzietan nabari aipatuak dira.
- XI. mendean, kristautasuna Akitania osoan zabaldu zen eta euskararen muga Pirinioetaraino bultzatu zuen, gaskoieraren gorakadarekin bat eginez. Oraingo eremuan izan ezik, hego Landetako, Biarnoko eta Pirinio garaietako hainbat esparrutan ere biziraun zukeen euskarak denbora batez. Mende pare bat beranduago, euskararen joera finkatua zatekeen: Zuberoan biziraunen zuen eta Biarnoko ibarretan apaldu eta itzaliko.
- XVI. mendean: Smet bidaiari flandestarraren arabera, 1597. urtean Biarno euskalduna zen. Goi Biarnoa zatekeen, eta horrekin pentsa daiteke oraindik jende euskaldunik bazela Pirinio biarnesetan.
- XVIII. eta XIX. mendeetan, euskara Lapurdiko hiruburuan (MAM eremuan hain zuzen), Ipar Nafarroa behean (Bidaxune, Burge eta Hiriberrin) eta Ipar Zuberoako muga (Zuberoako Jeztazen eta Biarnoko Nabaze, Ezkoze eta Lexozen) iraungi zen.
- XX mende hasieran: Ozerainen (Ipar Zuberoako muga) itzali zen euskara. Sarantzünekoa agian urte haietan ere itzali zen, oraindik bizirik bazen.




Akitaniako euskararen atzerakada

1.2. ZUBEROA ETA BIARNO ARTEKO EREMUA

Aitzineko ataleko bigarren mapan, Biarno ertzeko eremu txiki bat erdi berde erdi laranja agertzen da. Zergatik ote? Hortxe dugu artikulu honen zergatia. Eremu honetan, Eskiulako inguruetan hain zuzen, euskara berriz sartu zen erromantzearen lurretan.

Izan ere, euskararen azken milurteko historia ez da bakarrik eremu galtze edo gibeleratze batena izan. Euskaldunek, zuberotarrek hain zuzen, Zuberoako mugak gainditu zituzten eta Biarnoko hainbat gunek landu eta jendeztatu zuten.



Gaur egungo Pirinio Atlantiarrek departamendua

Giza mugimendua Zuberoa-Biarnoko mugan

TOPONIMIAK ETA LINGUISTIKAK AZALTZEN DUTENA:


- XII-XIII. mendeetan, Josbaig eta Barétous ibarrek euskara ziur aski galdua berri zuten. Hala ere, euskal toponimo ugari egundaino biziraunen zuten, bereziki Barétous ibarreko muinoetan.
- Bi ibar horietako biarnesez, *eth* eta *era* determinatzaileak erabiltzen dira. Horrek baieztatzen du euskara aski berandu galdu zutela.
- Salbaterrako barrutiko Uhaitzibar apalean, ipar Zuberoako aldean, herri eta etxe izen euskaldun andana bat bada, han ere euskarak duela gutxi arte biziraun duelako froga.

AGIRIEI ETA DATU HISTORIKOEI ESKER DAKIGUNA:

- Gutxi dakigu Zuberoako eta Biarnoko bizkonderrien lehenengo garaiei buruz. Biak IX. mendearen inguruan sortu ziren, Pirinioetako beste estatu txiki anitz bezala.
- 1221eko foruak Barétous ibarreko legeak biarnesez izendatu zituen.
- **1298ean**, Zuberoa eta Biarnoren arteko muga finkatu zuten. Zuberoako ordezkaria Miramonda Busykoa izan zen. Bestaldetik, Margarita Foixkoak sinatu zuen, Biarnoko erregenta zela eta. Muga politikoak muga linguistikoa ongi islatzen zuten, bereziki ekialdeko Joze ibarrean.
- 1385eko Biarnoko lehen erroldan, Josbaig ibarreko herri guztiak agertu ziren.
- 1470ean, Eskiula lehen aldikoz herri bezala idazki ofizialetan aipatu zuten.

ZUBEROTARREK BIARNOKO MUGAREN ZEHARKATZEAZ DAKIGUNA:

- XIV.eko hasieran Atharratzeko Jauregiko jaunak bultzaturik, zuberotarrak Biarnoko larretan sartu ziren eta lurak baliatzen hasi. Sortu zuten aldea Eskiula bilakatuko zen.
- 1398ean, Zuberoak Sarantzüne auzoa galdu zuen, Biarnoren mesederako. Barlanés ("Val Lanes", Landako ibarra) bilakatu zen.
- XV.ean, Montori eta Barkoxeko biztanleek Sarantzüne auzoa antolatu eta jendeztatu zuten. Istiluak Barétous ibarreko landatarrekin gertatu ziren. Hiru mendetako auzi baten ondotik, auzoa Biarnon behin betikoz geratu zen.
- Eskiula herri bezala 1470.ean osatu zen. Bere eliza Barkoxetik 1645ean bereiziko zen.
- XVIII.ean, eskiulatarrak Josbaig oihanean barneratu ziren eta etxaldeak Jeruntzeko lurretan eraiki zituzten.
- Philippe Oihanbururen ustez, Landako euskarak XX. hastapenera arte biziraun zuen. Gero 60 urteetan, Santa Graziko emakume euskaldun anitz Sarantzüneko laborari biarneseekin ezkondu zen.



Euskararen mugimenduak Biarnoko mugan

2. Eliza barrutiak, udal antolamenduak eta haur hezkuntza sarea

Aztertu eremuko oraingo egoera linguistikoa azaldu ahal izateko, hiru erakunde kontuan hartu behar dugu: eliza, udalerrriak eta hezkuntza. Jarraian ikusiko dugun bezala, dena nahasia da, hiru erakundeak ez baitziren garai berean sortu eta helburu ezberdinak baitzituzten.

ELIZAK: XIV.etik XVIII.era arte

Lehen komunitate euskaldunak elizen inguruan antolatu eta egituratu ziren, XIV eta XV. mendeetan. Eskiulako eliza Barkoxekotik 1645ean banandu zen. Orduetik, bi komunitate eliztar argi bereizten da. Alde batetik, Barkoxeko eliztarrak ditugu eta bestaldetik Eskiulakoak. Eskiulako Bervielle auzokoak biarnesak dira eta Momorreko eliztarrak dira. Gero, hainbat euskaldun jeruntzar Jeruntzeko elizara jotzen hasi zen.

Argi da hizkuntzek eta parrokiek bat egiten zutela. Bat egite zahar horrek gaur egun oraindik bistan bistakoa da.

HERRIKO ETXEAK: XIX.etik egundaino

Frantziar iraultzak eta errepublikarrek udaletxeak bultzatu zituzten eta XVIII. bukaeratik aitzina lur antolakuntza birmoldeatu zuten. Sortu egitura berriak ez zuen Elizarenarekin bat egiten.

Lehenengo denboretan, oihanak eta mendi gainak ziren herrien eta mintzairen mugak. Errepublikar pentsamoldea oso bestelakoa zen eta udalerrriak errekekin mugatu zituzten. Ondorioz, Eskiula hiru errekez mugarritu zuten: iparmendebaldean Joze da muga, hegoaldean Litoze eta ekialdean Le Vert.

Joze erreka Josbaig oihanetik iragaten da. Ezkerraldea Jeruntzeko lurra da, bertako biztanle euskaldunek Alaxe edo Lazea deitzen dutena. Biztanleak ofizialki jeruntzarrak dira. Eskuinaldea Eskiulak dauka eta bertako etxaldeak eskiulatarrak dira.

Litoze erreka Narbe ibar euskaldunetik iragaten da. Ezkerraldea Eskiulako lurra da eta bertako etxaldeak eskiulatarrak dira. Eskuinaldekoak, aldiz, Inhaze, Arhantze eta Aramitze udalerrietan kokaturik dira eta beren biztanleak ofizialki herri biarnes horietakoak dira.

HAUR ESKOLAK: XX.ean

Azkenean, XX.ean hezkuntza errepublikarra zabaldu zen eta eskola txikien sarea sortu zuten. Gogora dezagun lehen mundu gerran (1914-1918) frantziar soldadoen erdiek ez zekitelako frantsesez.

Erakunde berri honek ere ez zuen aitzineko udalerrietako egitura ofizialekin bat egin, eta auzo baztertuenetan eskolak ezarri zituzten.

Hiru auzoko haur eskola nabarmentzekoak dira: Gaztelondokoa eta Alaxekoa Joze ibarrean, eta Narbekoa Litoze erreka ertzean. Lehena Barkoxeko lurrean da, bigarrena Jeruntzekoan eta hirugarrena Eskiulakoan.


Gaztelondoko eskola Joze ibar garaian finkaturik zen. Bere esku ziren Barkoxe hegoaldeko haurrak, Landa eta Aramitze ertzeko haur euskaldunak, baita Eskiulako Bartabürü Ibar auzoko alde hegoaldearena ere.

Narbeko eskolak Narbe erdiko haur guztiak zituen bere esku. Bere eraginpean ondoko etxaldeak ziren: Narbe ibarreko etxalde eskiulatarrak gehi Litoze eskuin aldekoak, hau da Aramitze, Arhantze eta Inhazekoak.


Alaxeko eskolak Jeruntzeko haur euskaldun guztiak hartzen zituen, baita Eskiulako Landa Sohüta auzoko hainbat haur ere.

Gaur egun, jakina, eskola txiki hauek guztiak hetsiak dira. Haur txikiak Barkoxera, Eskiulara edo urrunagora ere autoz eta autobusez joaten dira.

⇒ Hiru erakusle horiekin XX.eko auzoko harreman sozialak nolakoak ziren azalduko dugu.



Eliza barrutiak, udal antolamenduak eta haur hezkuntza sarea



3. Giza harremanak Biarnoko bazter zuberotar honetan

Atal honetan, Biarnoko euskaldunek nora jotzen zuten azalduko dugu. Aurrekoan ikusi dugun bezala, hiru erakunde azertu eremua moldatu zuten, eta gaur egungo gizarteko harremanen erakusle izaten jarraitzen dute.

Biarnoko euskaldunek ez zuten guztiek ber lekuetara jotzen, erakunde zibilek ez baitzuten alor guztietan bat egiten. Gehiengorako, eliza, eskola, herriko etxea eta auzokideak ez ziren guztiak herri berekoak eta konbinazio anitz posible zen.

LEHEN MAILA: ELIZA

Elizak giro nekazale honetan betidanik ukan du pisurik handiena. Harreman sozialak oraindik gutxi arte egituratu ditu eta gizarteko gertakarien oinarria zen.

Familia euskaldun bakoitzak Barkoxe eta Eskiulako elizetan hilobia badu, udalerrri biarnes bateko herritarra izanik ere. Beraz, errepublika aurreko ohidurari eutsi diote.

Eliza ospakizun ohikoetan parte hartzen zuten: haurrentzako katiximan, igandeko mezan, ezkontzetan, ehorzketetan eta beste elizkizunetan. Meza eta katixima astero ospatzen zirenez, lotura eta elkartasun sendoak sortzen ziren.

Ohart dezagun Eskiulan katixima euskaraz ematen zela eta zubererazko otoitze liburuxkak erabiltzen zituzten. Eliza euskara lagundu duen erakunde bakarra da.

BIGARREN MAILA: HAUR ESKOLA

Erakunde hau XX. mendearen hasieran garatu eta zabaldu zen. Haurtzaroko jarduerarik garrantzitsuenetarikoa zen, katiximarekin eta etxaldeko betebeharrekin batera.

Oso auzoko harreman estuak sortzen zituen, jakina, baita errealtate baten kontzientzia: eleaniztasunarena. Izan ere, haur anitz bospasei urtetan euskaldun elebakar heltzen ziren eta frantsesetik deus gutxi ez zekiten. Salbuespena Jeruntzeko bazterra izan zitekeen, non euskara eta biarnesa nahasiagoak baitziren.

Euskararen edo biarnesaren erabilpena debekaturik zen, baita garai batez zigorturik ere. Jakin jakina da eskolaren erakundeak lortu zuena. Zenbaitetan, haur bat eskolan euskaldun sartzen zen eta urte batzuen buruan erdaldun jalgitzen. Gizaldi bat edo bi elebidun bilakatu zen, eta ondokoak frantses elebakar hezi zituzten, salbuespenak salbuespen. Eskola euskara gehien kaltetu duen erakundea da.

Gaur egun auzoko haur eskolak desagertu dira. Haur txikiak Barkoxe edo Eskiulako eskolara autobusez eta autoz doaz. Barkoxen haur eskola elebidun bat bada, 50 hurrekin.

HIRUGARREN MAILA: HERRIKO ETXEA

Erakunde hau da azertu eremuko euskaldunak gehien banantzen dituena. Egia erran, herriko etxeek gehien-gehienetan ez dute gauza batentzat baizik balio: paper ofizialen egiteko, lur jabetasunekoak barne (katastroak). Are gutxiagotan, bozketa denboretan ere udaletxera joan behar zen, herrilanak (errepidea, elektrizitatea, ur zerbitzua) eskatu behar zirenean, etabarretan.

Zenbaitetan, herriko etxea etxalde euskaldun batetik izugarri urrun zen, Jeruntzeko JohaÑe Mainhagü horren lekuko :

Badakikek Je'untze heltzen dela Barkoxe khantila. Baganakia bi je'unztar egoiten zi'ela Barkoxe khantin. Eta behar zi'ela'ik Je'unzeko me'iala jun, behar zieia egin hoge bat kilometra, Moumour-e'ik iga'itez. Huñez, nun e' beita, ezpeitzen denbo'a hetan, ez oto'ik, ez bizikleta'ik. Egünko egünin, aişago dük. Sallet khantütik otoak iga'iten tük. Huñez beitzien, juiten zütia nun e' beita oihanetik xüxen, Barkoxe'ik Je'untze'at.

Jakinen duk Jeruntze heltzen dela Barkoxe albora. Bagenekian bi jerunzta bizi zirela Barkoxe ondoan. Eta behar zirelarik Jeruntzeko udaletxera joan, behar zitean egin hoge bat kilometra, Momor-etik iraganez. Oinez, ziurrenik, ez baitzen denbora haietan, ez autorik, ez bizikletarik.

Egungo egunean, aisago duk. Sallet ondotik autoak iragaten dituk. Oinez [ibiltzen] baitziren, joaten zituan ziurrenik oihanetik xuxen, Barkoxetik Jeruntzera.

Udaletxeetan, bertako herritarrek egiten ohi dute lan. Beraz, Barkoxen eta Eskiulan, euskara zein frantsesa zilegi eta onartuak ziren, paper ofizialetan salbuespen (frantses hutsik).

Biarnoko udaletxeetan (Jeruntzen, Aramitzen etabarretan), aldiz, biarnesa edo frantsesa erabili behar ziren. Hor ere agertzen zen erdararen beharra.

LAUGARREN MAILA: AUZOKO BIARNESAK

Bistan bistakoa da herri biarnesetako euskaldunek bertako biarnesekin harremanak zituztela, bereziki auzoko laborariekin.

Ildo berari jarraituz, laborari euskaldunek maiz herri biarnesetako merkatuetara (Oloroe barne) zihoazen, beren ekoizpenen saltzeko asmoz. Argi da biarnesez gutxieneko trebetasuna behar zela, giro nekazale horretan mintzaira sakon erroturik zen-eta.

Atal honekin bukatzeko, berriz ere JohaÑe Mainhagüren lekukotasunaz baliatuko gara, Josbaig oihanaren bazterra aipatzen zuela:

Larraja Jeüzeko alderri bat dük. L'Hospitali'en eta Barkoxeko bidin dük. Ene khuntaz eztük Je'untze eta Jeüzen baizik alderri üskaldünik. Lehen phü', egünko egünin oro nahasten tük: biarnešak Üskal Herrin, üskaldünak Biarnon,...

Larraja Ustasüko alderri bat duk. Ospitale[aren] eta Barkoxeko bidean duk. Nire kontuaz ez duk Jeruntze eta Ustasün baizik alderri euskaldunik*. Lehen bederen, egungo egunean oro nahasten dituk: biarnesak Euskal Herrian, euskaldunak Biarnon, ...

* Larraja auzoaz soilik ari da.

Behin baino gehiagotan entzun dut hizkuntza muga lehen argiagoa zela, alde batetik euskaldunak eta bestaldetik biarnesak. Duela mendebeteko kontua da.



Saletia etxaldetiko ikuspegia: Jeruntzeko Lazea aldapan behera eta Eskiula (Hegilla) gibelean

4. Biarnoko zubereraren atzerakada XX. mendean

Eskola XX. mendearen hastapenean Biarnoko auzo euskaldunetan sartu zenetik, euskarak izugarriko atzerakada jasan du. Ez da bakarrik Biarno ertzeko kontua, Zuberota osoan ere gertatu delako. Giro frantses eta modernoa etxalde euskaldunetako leiho guztietarik sartu da eta mintzairari kalte mingarriak egin dizkio.

Bi ikerketaren medioz XX.eko euskararen bilakaera aztertuko dugu. Lehenengorako, Jeruntzeko Peio Etxegorri bere haurtzaroko euskararen egoera 2006 urte bukaeran gogoratu eta transkribatu zuen. Bigarrena Eskiulako herriko etxeko Marie Reine Hurzurigarai idazkariak 2004/12/07ean egin zuen. Eskiulatarren euskararen ezagutza adin taldeka karkulatu zuen. Beraz, Eskiula "handiko" alderako 1930eko eta 2004eko datuak ditugu.


ALAXEKO EUSKARAREN HEDAPENA 1930EAN:

Has gaitzen JohaÑe Mainhagü jeruntzarrak –1930ean 18 urte zuenak– behin idatzi zidanarekin :


Behar dik gaiza bat ezagütü: Eskiula eta Lazea Biarnon tük, bena üskaldünak gütük, nahi ala ez. Eta hi'u mintzaje üntzüten gina: frantsesa prefosta, biarneša eta üska'. Etxe batetik bestila, bi aizuen artin, batak Eskiulan, bestik Je'untzen ebiltzen zütia. (...) Eta aita eta ama üska'z mintzatzen zütia etxen. Osabak, izabak, košiak, aizuk, lagünak oro, aphür edo hanitx üska'z a'i zütia.

Behar dik gauza bat ezagutu: Eskiula eta Lazea Biarnon dituk, baina euskaldunak gaituk, nahi ala ez. Eta hiru mintzaira entzuten genian: frantsesa noski, biarnesa eta euskara. Etxe batetik bestera, bi auzoen artean, batak Eskiulan, besteak Jeruntzen ibiltzen zituan. Eta aita eta ama euskaraz mintzatzen zituan etxen. Osabak, izabak, lehengusuak, auzo[ko]ak, lagunak oro, apur edo anitz euskaraz ari zituan.

Jeruntzeko euskaldunek beren auzoari Alaxe edo Lazea deitzen diote. Frantsesaren «[Au] Lacé» erranmoldearen itzulpena da, hau da, «lokarria», bideak egiten dituen bihurguneengatik. Egin ikerketan –edo hobeki erranik egin kontaktetan– Alaxeko 25 etxaldeetan 1930ean zein hizkuntzatan mintzatzen zen aztertzen da, hiru belaunaldi bereiziz: aitamona eta aitamak helduen talderako eta haurrak belaunaldi berriaren talderako. Ondokoak dira emaitzak:



euskara eta biarneseko gaitasun orotakoa



belaunaldikako hizkuntza gaitasuna

Ondoko ohar eta ondorioztatzeak egin ditzakegu:

- Alaxetar heldu guztiak elebidunak ziren (euskara ala biarnesa), sekula frantses elebakarrak.
- 30 etxaldeetarik 20 euskaldunak ziren eta 5 biarnesak. Bost etxalde horietan, guraso bat edo familia osoa Jeruntzetik zetorren.
- Hainbat etxaldetan, frantsesa etxeko mintzaira arrunta bilakatu zen. Haurren %10a sasi erdalduna zen, ez baitzuten euskaraz edo biarnesez mintzatzeko gaitasunik. Joera berria azaltzen da beraz, gazte horien haurrak ziur aski erdaldun (frantsesdun) hutsak izanen zirelako.

Irizarren arabera, 1970ean Jeruntzen 70 euskaldun bazen oraindik. Datu sinesgarria da, 1930.ean 68 haur euskaldun baldin bazen. Hamarkada bukaera hartan, 13 bat etxalde euskaldun (%65), 5 bat etxalde biarnes (%25) eta frantses etxalde pare bat (%10) geratzen zen, besteak abandonaturik egon zirelarik.

2005ean, 35 urte beranduago, egoera ezin dolugarriagoa da. Auzoa hustu da eta ez da 30 biztanle baizik geratzen. Horietarik 8 dira euskaldun (%27), baina guztiak 70 urtez goitikoak. Alaxen bizi diren 6 haurrak erdaldun hutsak dira.

ESKIULAKO EUSKARAREN HEDAPENA 2004.EAN:

XVIII.ean, Jean Louis de Vignau (†1771ean) abokatuak agiri administratibo batetik hartu ondoko oharren berri eman zuen:



“Les habitants d’Esquiule n’entendaient dans le vray que le basque, langue commune du lieu d’Esquiule, quoique situé en Béarn. Ce qui était si vray que les écoles s’y tenaient en basque, les prônes, les prédications, de même que les confessions se faisaient dans cette langue.”

Egia erran eskiulatarrek ez zuten euskara baizik ulertzen eta mintzatzeko, Eskiulako eremuko hizkuntza arrunta, nahiz eta Biarnon izan. Hain egia zen eskola euskaraz ematen baitzen, sermoiak, predikuak, bai eta konfesioak ere hizkuntza honetan egiten ziren.

Beraz, Eskiula XVIII.ean zinez euskalduna zen.

Bi mende beranduago, Pedro de Irizarrek egoera baieztatu zuen. Bere erranetan 1970ean 538 eskiulatarretarik 535 euskaldunak ziren, hau da herritarren %99! Beraz, garai hartan aiseago zen erdaldunen kontatzea! Ez dakigu Bervielle auzoko eskiulatarrek kontuan hartu zituen ala ez, auzoa aspaldidanik biarnesa baita.

Eskiulako emaitzek Jeruntzekoek baino hobeak dirudite, baina ez dira alegeratzeko modukoak. Izan ere, hogeita lau urte beranduago, egoera oso bestelakoa da. 2004an, 541 eskiulatarretarik 312 soilik ziren euskaldun (%58, euskaldun hartzaileak barne). Azter ditzagun ondoko taulak :




➡ Azken 24 urte horietan, euskaldunen kopurua %99tik (?) %58ra jaitsi da.

➡ 40 urtez goitiko eskiulatar guztiak euskaraz dakite. 1970ean baino lehenago sortuak dira. Ez dakiten helduak kanpotarrak dira.

➡ Haustura 60ko hamarkadan egin zen, noiz familia transmisio katea hausten hasi zen.

➡ Gazteen artean erdara da nagusi. Oraingo 40 haurretarik 10 batek baizik ez omen daki euskaraz. Haur txipien artean, bik bakarrik daki, bata Kanbeilu auzokoa eta bestea Barrenakoa.



Eskiulatarrek eta Barkoxtarrek gauza bera baieztatzen dute: lehenago denboretan, eskiulatar guztiak eguneroko jardunetan euskaraz egiten zuten, barkoxtarrek baino gehiagotan. Orain badirudi Eskiulak Oloroeraino jotzen duela eta lehenago joera aldatu dela. Barkoxek haur eskola elebidun bat badu, Eskiulak ez.

Hirugarren taulak ongi azaltzen du zein izanen den biharko euskaldunen kopurua: gutxiengo batena. Eskiulako euskara oraindik bizirik da. Horren froga, udaletxeko idazkariak hartzen dituen deialdien ia erdiak euskaraz egiten dira. Zoritzarrez, gehienak herriko erdi zaharrenari dagozkio.

5. Biarnoko zubereraren hainbat ezaugarri

Atal honen hasteko, JohaÑe Mainhagürengandik jaso hiru oharrez baliatuko gara:

1. *Eskuilako üska'n elhe hanitxek thi'atzen die biarnešilat edo frantsešilat.*
2. *Manexa eta xiberutarra ezti'a pürki berrak hitz zumbaitetan.*
3. *Üdü'i dik üska' lübü'itan ikhasi'k eta xiberutarra ezti'ela algar enthelegatzen ahal.*

1. Eskuilako euskararen ele anitzek tiratzen ditek biarnesera edo frantsesera.
2. Manexa (Nafar-lapurtera) eta zuberera ez dira ia berdinak hitz zenbaitetan.
3. Irudi dik euskara, liburuetan ikasirik, eta zuberera ez direla elkar ulertzen ahal.

Gure lekukoak ez zituen hiru oharrak aldi berean egin. Bakoitzak zerbait jakingarri azaltzen du:

1. Gure Biarnoko zuberotarrak erderen kutsaren eraginaz jakitun dira.
2. Nafar-lapurterarekilako aldeaz ere jabetu dira.
3. «Liburuetako euskara» euskara batua da, jakina, eta bere ulertezintasuna bistakoa da.

Kontu horiek guztiak arruntak eta zabalduak dira Zuberoa osoan.

Egia erran Eskiula aldeko euskarak ez du zubererarekin alde handirik, eta jakinik da zuberera aski euskalki bateratua dela. Nola ez, lurraldea hain txikia izanik! Ondokoak dira nire irudiko zere bere bereizgarri nabarmenenak:

ASIMILAZIOAK:

Asimilazioak oso aldaketa ohikoak dira zubereraren. Batzuek maiztasun handiagoa Eskuilako inguruetan dute, Zuberoan baino. Bi motatakoak dira:

- Bokal errepikatzeak, bereziki Ü hotsa: *lübürü* (liburu) eta *ükhü'atü* (gelditu), *librü* eta *eküratü* ordez.
- Bokal bat-egiteak ez dira sistematikoak: *etxik* (etxeak) baina *etxiA'entako* (etxearendako). Zuberoan badira bi eredu nagusi. Mendi aldean (alde kontserbatzaileagoan), etxiak eta etxia'entako bikotea da ohikoa. Peko aldean (alde berritzaileagoan), etxik eta etxi'entako bikotea da arrunta.

BOKAL ALDAKORRAK:

Hainbat hitz motatan, bokalek aldaerak ukan ditzakete:

- Aditz hasierako E → E/I: *e'o'i* eta *i'o'i* (erori), *ebili* eta *ibili* (ibili)
- N aurreko O → O/U: *ondun* eta *undun* (ondoan), *estonatü* eta *estunatü* (s'étonner, harritu)
- A aurreko O → O/U: *xiberotar* eta *xiberutar* (zuberotar, ZuberOa Xiberua ahoskatzen baita)
- rA aurreko O → O/U: *o'ai* eta *u'ai* (orain), *labo'a'i* eta *labu'a'i* (laborari), *denbo'a* eta *denbu'a* (denbora), *go'antzi* eta *gu'antzi* (goraintzi[ak])
- I/Ü zalantza: *egü'ki* eta *egi'ki* (iguriki, zain egon), *üngü'* eta *ingü'* (inguru)

-N BUKAERAREN ZALANTZA:

Subjuntiboko adizkien N bukaera ez da beti agertzen, orainaldian zein iraganaldian. Zalantza ez da sistematikoa eta hiztun batetik bestera aldatzen da:

- *ikhus lezaØ* (ikus zezan), *mintza dadiØ* (mintza dadin) baita *har dezaN*, *jin lediN* (etor zedin) ere.

Aldiz, HIKAKo iraganaldiko adizkiak beti N gabe agertzen dira (ZÜKAKoak ez, ordea):

- HIKA: *ziá* (zuan), *zütiá* (zituan), *zieiá* (zitean), *zitada* (zidaan), *enakiá* (ez nekian)
- ZÜKA: *zízüN* (zuen), *zütüzüN* (ziren), *ziézüN* (zuten), *enakízüN* (ez nekien)

HIKAKO ADIZKI ALDAKORRAK:

Ontsalaraz, Ü era neutroaren erakuslea da eta I HIKAKoarena. Hala ere, hiztunek lehena ere HIKARako erabil dezakete.

- *nükia* = *nikia* (nikean <= *nükin* + TOKA), *dükiat* eta *dikiat* (dikeat <= *düket* + TOKA)
- *ginia* = *günia* eta *gina* (ginian <= *günin* + TOKA)

Bikote bitxi bat aipatuko dugu:

- *diokat* = *dioiat* (zioat <= *deiot* + TOKA)

NOKA TRATAMENDUA:

NOKAkoa ia Zuberoa osoan desagertzekotan da. Era familiarregizat jotzen da eta horren ordean ZÜKAkoa erabiltzen da. Hala izanik ere, emakumezkoen HIKAKoak ekialdeko eremuan bizirik dirau, Barkoxe barne.

Bestela, HIKAKo erak lehen baino zabalduagoak dira eta belaunaldien arteko solasetan ere erabil daitezke. Zenbait kasu bitxi gerta daiteke, hala nola bi ezkonturen artean euskaraz ZÜKA egitea eta frantsesera aldatzen dutenean... HIKA!

ALDIAK:

Geroaldia aditz burutu guztiekin bi eratara osa daiteke: bai (e)KO atzizkiarekin, bai (r)EN atzizkiarekin. Hiztun bakoitzak badu bere eredia: beti (e)KO batzuentzat, ala KO (bokal bukaeradun aditzekin) eta EN (kontsonante bukaeradun aditzekin) besteentzat. Oso bakanka hartzen dute (r)EN atzizkia bokal bukaeradun aditzek.

- Batzuek: *egineko* (egingo) + *ikhusiko* (ikusiko)
- Besteek: *eginen* (eginen) + *ikhusiko* (ikusiko)
- Bakanka: *eginen* (eginen) + *ikhusi'en* (ikusiren)

Oharra. Dirudenez Santa Graziko geroaldia bikoiztua da. Aldiz, Eskiulak bere ertzetik hegoaldeko eredia (KO & GO) ber asmatu du.

- Santa grazin: EN + KO => ENKO ; *eginenko* (eginen + egingo) etab.
- Eskiulan: kontsonante + KO => EKO ; *egineko* (egingo). Ikus *leheneko* (lehengo).

Bukatzeko, bereizgarri ikusgarriena azalduko dugu: Eskiulako aldean opazkoak bizirik dirau. Oso hedapen txikia dauka zaharkeria honek, ez baita Barkoxera ere heltzen! Erabilpen arruntak Jeruntzen eta Eskiulako herri barnan jaso ditut.

- Orainaldian: *ailedi mintza!* (mintzatuko ahal da!), *ailleza ikhus !* (ikusiko ahal da!)
- Iraganaldian: *ailitz mintzatü!* (mintzatuko ahal zen!), *ailü ikhusi!* (ikusiko ahal zen!)

Azken hitzak

Ikusi dugu egungo Biarnoko zuberotarrek jatorria Zuberoan bertan badutela. Beren finkatzea aski kontu berria da, baina milurte erdi honetan ez dute euskal sena edo sendimendua galdu. Hala ere, euskaltasun hori kilin-kalan da. Egia da Zuberoa osoko kontua dela (lurren soiltzea, jendearen zahartzea, euskararen ahulezia) baina joera aldaketa nabaria agertu da: Oloroerantz begiratzea. Norainoko aldaketa? Geroak erranen.

LEKUKOAK

Ondoko pertsonak hein batean edo bestean beren laguntza eskaini didate, eta ondorioz artikulua honen idaztera lagundu.

- Johaïne Mainhagü, jerunztarra. Askazia.
- Peio Etxegorri, jerunztarra. Askazia.
- Mayi Etxegorri (Garat sortua), eskiulatarra. Askazia.
- Marie Reine Hurzurigarai, eskiulatarra. Eskiulako udaletxeko idazkaria.
- Leo Lecuix, eskiulatarra. Eskiulako eruditoa.
- Marcel Lerdou, eskiulatarra. Eskiulako agintari kulturala.
- Jean Pierre Rousseu, eskiulatarra. Eskiulako alkate ohia.
- Céline Monod, Landako udaletxeko idazkaria.

Guztiei eskerrik beroenak azaldu pazientza eta jakin-minagatik!